

Oposición cuerpos de secundaria, escuelas oficiales de idiomas y especialistas en sectores singulares de la formación profesional 2025 Bigarren hezkuntzako, hizkuntza-eskola ofizialetako eta lanbide-heziketako sektore berezietako	Prueba 2A, defensa de la programación didáctica / ámbito ESO / Bachillerato 2A proba, programazio didaktikoaren defentsa / DBH/Batxilergoa
Resolución 249/2024, de 15 de octubre / 249/2024 Ebazpena, urriaren 15ekoa	

0590 - FRANCÉS / EUSKERA

0590 - FRANTSESA / EUSKARA

CRITERIO DE VALORACIÓN / BALORAZIO IRIZPIDEAK	Puntuaciones / descuentos máximos Gehieneko puntuazioak / murrizketa
Baldintzak - (Descuento / murrizketa)	5 ptos. / puntu
Baldintza formalak betetzen ez baditu Programazio didaktikoak eta, egokia denean, urteko lan planak gehienez ere 50 orrialde zenbakitu izanen ditu, DIN-A4 formatuan, leerroarte arruntarekin, 12 puntuko Arial letra erabiliz, konprimatu gabe. Grafikoa, taula, irudi eta antzekoetan 10 puntuko Arial letra erabiltzen ahalko da. Argazki oinetan, orri oinetan eta goiburuan Arial ez den beste letra mota bat eta aipatutakoa ez den beste neurri bat erabiltzen ahalko dira. Azalaren diseinua libre da, baina nahitaez jasoko dira izangaiaren izena, abizenak eta NAN zenbakia edo identifikazio agiria. 10 unitate didaktiko izanen ditu gutxienez edo, egokia denean, 10 lan unitate. Unitateak zenbakituta egonen dira eta behar adina informazio izanen dute, epaimahaiak unitate didaktikoaren aurkezpena eta defentsa jarraitzeko moduan. Urteko lan planaren kasuan, 10 unitate didaktikoak ordezkatu egingen dira esku hartze psikopedagogikoko 10 programarekin. Programak zenbakituta egonen dira eta behar adina informazio izanen dute, epaimahaiak lan planaren aurkezpena eta defentsa jarraitzeko moduan. Programazio didaktikoaren / urteko lan planaren azala, kontrazala eta aurkibidea ez dira zenbatuko 50 orrialde horien barruan. Izangaiak bere borondatez eranskinak edo material lagungarriak gehitzen baditu, ulertuko da baimendutako orri kopuruaren barruan daudela, eta horiek ere aipatutako ezaugarri teknikoak bete beharko dituzte.	Probaren A zatiaren balioaren %50eko murrizketa
GAIAREN ANTOLAKETA	1,5 ptos. / puntu
Programazioaren aurkezpena, justifikazioa eta testuingurua, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko datan indarrean dagoen curriculumaren esparru barruan.	0,5 ptos. / puntu
Ongi planteatuak egotea programazioa osatzen duten elementuak, atalen koherentzia eta proposatzen duen sekuentziarioaren logika.	1 pto. / puntu
EDUKI TEKNIKOAK	1,5 ptos. / puntu
Programazioak zehazten ditu deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzeko datan indarrean dagoen araudian ezarritako curriculumeko elementuak, programazioari dagokion hezkuntza etapako mailarekin bat etorritz.	0,5 ptos. / puntu
DBH edo Batxilergoko programazioan zehaztuko dira ikaskuntza helburuak, gaitasunak (funtsezkoak eta espezifikoak), deskriptore operatiboak, oinarritzko jakintza gisa adierazitako edukiak, metodo pedagogikoak, ebaluazio irizpideak eta ikaskuntza egoerak, bai funtsezko gaitasun zein gaitasun espezifikoak eskuratzekoak eta baita helburuak erdiestekoak ere. Horrez gain, DBHren programazioak zehaztuko du gainerako elementuek irteerako profilari egiten dioten ekarpena.	1 pto. / puntu

EDUKI DIDAKTIKOA	3 ptos. / puntu
Ikasmailarako egokiak diren metodologia, materialak eta baliabide didaktikoak.	1 pto. / puntu
Prozedurak, lanabesak, tresnak eta ebaluazioari lotutako bestelako alderdiak zehaztea, Nafarroako Foru Komunitatean ebaluazioaren arloan indarrean den araudiari jarraituz.	1 pto. / puntu
Aniztasunari erantzuteko neurriak, arreta berezia jarriz hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleentzako neurriak.	1 pto. / puntu
KOMUNIKAZIO GAITASUNA	2 ptos. / puntu
Ideiak modu egituratuan eta ulergarrian adierazi dira, komunikazio-testuingurura egokitutako formalitate-mailarekin hitz egiteko gaitasunarekin.	1,6 ptos. / puntu
Ebaluazio epaimahiaren galderei emandako erantzunak egokiak eta koherenteak izan dira.	0,4 ptos. / puntu
HIZKUNTZA GAITASUNA	2 ptos. / puntu
Ortografia eta puntuazioa	0,4 ptos. / puntu
Hizkuntzaren erabilera zuzena (ahoskera, aditz-formak, perpausak, komunztadura, ...)	0,8 ptos. / puntu
Hiztegiaren eta hitzen aberastasuna zein erabilera zuzena.	0,8 ptos. / puntu
Programazio plagiatuak aurkeztuz gero edo zenbait izangaik programazio didaktiko bera aurkeztuz gero, izangaia edo izangaia hautapen prozeduratik kanpo geldituko dira.	